



DANI BLANCO

Mikel Zurbano



EHUKO

IRAKASLEA,

EKONOMIALARIA

Global Foruma eta tokiko agiria

BILBON izan berri den goi-bileraren goi-buruaren bigarren zatiak erakusten du zein izan den ekitaldiaren asmoa eta oinarri ideologikoa: *Espainia Global Foruma: Egonkortasunetik Hazkundera*. Troikak eta erakunde multilateral doilorrenen ondoko mezua helarazi nahi izan digute, gaurko ezinbesteko estutasunak biharko onura ekarriko duela, alegia. Espainiako Estatuan krisiak zazpi urte eta doikuntza politikak lau urte beteko dituen honetan Bilbo aukeratu dute troikak eta hurbileko instituzioek (Europako Batzordea, NDF, EBZ, OECD...) egonkortasun ekonomikoaren apologia egin eta murrizketa politikak legitimatzeko. Lau urteotako estatu mailako doikuntzen porrota estali eta horien aldeko marketin instituzional lotsagarria egitera etorri dira Bilbora.

Europako Batasunaren (EB) eta euroguneko arauen berrikusketaren alde egiten da agirian eta merkatuaren logikaren ondorioz gizatalde eta irabazle zein galtzaileen arteko lubakia gutxitzeko elkartasun eta kohesioaren irizpideak lehenestea eskatzen da

Nolanahi ere, hitzordu horren karira bestelako ekonomia eta gizartearen aldarria egin da, oso modu zabalean egin ere. Kaleko agerpen jendetsuez harago, ekimen esanguratsu eta berria ere egon da, pertsonen zerbitzurako ekonomia baten aldeko agiria, alegia. Berria, arlo akademikotik horrelako goi-bileraren aurrean erantzun ozena ematea ez baita ohikoa, are gutxiago ekonomia eta enpresaren arloan. Esanguratsua izan da sinaduren kopuruaz harago -500 inguru, erdiak EHkoak- unibertsitateko irakasle horien aniztasun politikoa eta ideologikoa ere aipagarria delako.

Agirian austeritate politiken porrotaren ebidentzia ugari ematen da, hala nola, estatu mailako langabezia-tasaren igoera, enpleguaren kalitatearen narriadura,

pobreziaren eta gizarte-bazterketaren hedapen indartsua, desberdintasunen inoizko igoerarik larriena eta, baita murrizketa neurrien aitzakia diren hainbat indizeren porrota, hala nola zor publikoa BPGaren %100era igo izana. Honekin guztiarekin demokraziaren gainbehera eta estatu sozialaren aztarna oro galtzeko arriskua azpimarratzen da.

Salaketaz harago esku-hartze publikorako gaur egungo irizpideen aldaketa ere eskatzen dute sinatzaileek. Errentagarritasun ekonomikoa eta lehiakortasunaren kontzeptuak ezin dira izan ekonomi oinarriaren berezko azken helburu gisa hartuak. Horien ustez, ekitateak izan behar du ekonomiaren funtzionamendurako ezinbesteko lehen erreferentzia. Austeritate politikak sorrarazten dituzten muturreko desberdintasunak sozialki bidegabeak izateaz gain ekonomikoki efizientziaren galera ere eragiten baitute. Gainera, lehia ekonomikoa ezin zaiola ekonomi iraunkortasunaren printzipioari gailendu diote, efizientzia ekologikorik ezean ekonomiaren etorkizuna ustela delako. Horren guztiaren kudeaketa publikoak demokratikoa eta gardena izan behar du herritarren parte hartzearen mekanismoa lehenetsita. Europako Batasunaren (EB) eta euroguneko arauen berrikusketaren alde egiten da agirian eta merkatuaren logikaren ondorioz gizatalde eta irabazle zein galtzaileen arteko lubakia gutxitzeko elkartasun eta kohesioaren irizpideak lehenestea eskatzen da.

Agiriak haize freskoa dakar eta krisiaren inguruan dauden bi mito suntsitu egiten ditu. Lehen, krisiari aurre egitea arazo tekniko-ekonomikoa delako ustea. Merkatuen exigentziei erantzuteko neurri teknikoak dira balekoak troikaren esanetan. Baina arrazoi teknokratikoaren aurretik lehentasun politikoak daudela nabarmentzen du agiriak eta krisiaren irteerak diseinatzerakoan politikaren beharra azpimarratzen du. Agiriarekin bigarren mito bat ere suntsitzen da, austeritatearen aurrean alternatibarik ez dagoela baieztatzen duena, alegia. ■

